

Korreotako bulegoa haunditu egingo dute datorren urtean

■ Bulegoak 234 metro karratu ditu orain eta 400 izango ditu haundituta ■ Posta enpresak Gartzia Goldaritzen lokalak erosi ditu bulegoa zabaltzeko.



Korreotako bulegoa bezeroari zerbitzu hobea eskaini asmoz haunditu egingo dute.

KORREOTAKO Hernaniko bulegoa haunditzeko asmoa dute. Horretarako orain Gartzia Goldaritzen duen bulegoaren ondoko hainbat lokal erosi ditu. Erositako lokalen batura 166 metrotakoa da, eta 22 milioi kosta zaio posta enpresari. Lokal berriekin eta orain artekoarekin Korreosek bere bulegoaren tamaina ia bikoiztu egingo du, orain dituen 234 metrotatik 400 metrotara pasako baita.

OBRA PROIEKTUA
Momentuz teknikoak bulego berriak izango duen estruktura aztertu eta obra proiektua

DATUA
Korreotako lokal berriak bi leku izango ditu: bat bezeroak atenditzeko eta bestea eskutitz lekua

prestatzen ari dira. Behin proiektua prestatzean, obrak hasiko dira, eta datorren urterako lokal berria prest egongo dela espero du Korreosek.

Lokal berriak oinarrian bi espazio ezberdin izango ditu. Bat bezeroei atentziorako espazioa, eta bestea eskutitzak tratatuko dituzten gunea. Bezeroentzako gunea orain baino haundiagoa izango da, honela bezeroari atentzio hobea emateko asmoarekin. Bi gune horiez gain, 250 posta kutxatila ere izango dira.

14 LANGILE
Hernaniko Correosetan 14 langile ari dira lanean une honetan. Hauetatik 10 postariak dira. Beste lauak berriz bulego lanez eta bezeroari atentzioaz arduratzen dira. □

■ BOLA

Migel Arrozpidek irabazi du Benta Berrin 36 brillia botata

■ Jose Belaunzaran gelditu da bigarren eta Migel Burugain hirugarren, biak 34 brillia botata.



Bolariak, lanak bukatuta tertulian.

ATZO bolako tiraldia izan zen Benta Berriko bolatokian, goizean hasi eta hamabiak artekoa. Irabazlea Hernaniko aurtengo txapelduna izan zen, Migel Arrozpide, Klub Deportibokoa.

GAUZAK ESTU
Arrozpidek bi brilako aldea kendu zion Jose Anjel Belaunzarani. Hortik atzera, berriz, gauzak oraindik eta estuago izan ziren. Belaunzarane, Burugainek eta Goenagak hogeita hamalauna brillia bota zituzten-eta.



Migel Arrozpide sorgintxuloarra, Hernaniko txapelduna

BOLATOKI BERRIARI BURUZKO KONTUAK
Zenbait bolarik *Kronikari* esana diotenez, Benta Berriko bolatokia lekuz aldatzekoa dute. Hori izan zen eguerdiko hizketa gai nagusia. Bolari batzuk udalarekin biltzeko kontua ere aiatatu dute propo-

samenen bat egiteko. Han esaten zenez, bolatoki berria egin aurretik herritik gertuago jartzeko zer aukera dagoen ikusi behar litzateke.

Idea konkretu bat ere planteatu zen bolatoki berria herri barruan jartzeko: jendearen eskura eta orain egitekoa dutena baino merkeago. □

■ ARRAUNA

Hernani-Ubis zazpigarren Pontejoseko banderan

■ Urkik irabazi eta hernaniarrak 33 segundura sartu

HERNANI-UBIS-ek asteburu gogorra izan du. Larunbatean Pedreñan eta atzo Pontejosen. Sailkapenean erdiz atzera gelditu da, baina dendora ona eginda: 20'32". Sailkapena

honela gelditu da: 1-Urki, 19'59"; 2- Pedreña; 3-Ur-Joko; 4-Hondarribi-A; 5-Algotata; 6-Hondarribi-B eta 7-Hernani-Ubis. Denera, 9 traineru ateratu ziren. □

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

Zuri esker

ETXE ONENAK, S.A.

GARAJE ITXIAK 'OBLATOS'ETAN SALGAI

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

AITAN-ETXE TABERNA
EGUNEKO MENUAK

Larramendi 15 - Tel: 943 550046
HERNANI

GOIKO ARDOAK

EL COTO

Joseba Gorostegi Goikoetxea
Tel 943 55 19 15 - Mobilla 657 77 71

Jatetxea

Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
Oporren ondoren gaurtik berriro zabalik.

MADALENA JAIK ZAHARREN EGOITZAN

Egun osoko festa, atzo Sandiusterrin Madalena egunean

■ Bazkaritan 60-65 lagun izan ziren, Mertxe Etxeberria alkatea tartean zela.



Jendea gustora zegoen atzo bazkalondoan. Barrenean, trikitilariak giroa berotzen.

SANDIUSTERRIKO Zaharren Egoitzak atzo ospatu zuen Madalena jaietako egun haundia. Jaia goizean goiz hasi zuten txistularien dianarekin eta eguerdiko hamabietan meza nagusia izan zuten egoitzako kapilan.

Ordubata jota iritsi zen Injiniere Industrialen Tuna beren janzkera bereziarekin eta haiek alaitu zuten giroa bazkalorrean. Bazkaritan, berriz, ia jangela bete jende izan zen. Sandiusterriko edadetuekin batera Mertxe Etxeberria, alka-

tea; Imanol Beroitz, zinegotzia eta Ongintzako arduraduna; eta Goio Irazusta Jubilatutako egoitzako ordezkaria ziren han. Bazkalondoan trikitixa eta bingoa izan zituzten. Gaur, jaiak bukatzeko, San Joanetako diapositibak 17:30etan. □

Kale Hezitzaileek 10 urteko umeekin pasa dute astebete

■ Urte osoan emandako 'Ikas-jolas' proiektuaren jarraipena izan da.



Ikas-jolas taldeko gazteak Sandiusterrin dantzan, azken egunean.

Ikasturte honetako *Ikas-jolas* proiektua bukatzeko Kale Hezitzaileek astebeteko 'udaleku' egin dute 10 urteko umeekin. Hernani inguruan, Donostian, Zizurkilen eta abar ibili dira: Akuariuma ikusi, Santa Klara ugartean eguna pasa, pottokan ibili... *Ikas-jolas* programan 20-25 ikasle ibili ziren eta aste honetan 9 etorri dira.

JOLASEAN EGIN ETA IKASI
Ikas-jolas proiektua motibazio tailerra da, esan digu Iker Alustiza kale hezitzaileak. "Umeeke jolasean egin eta eskolako lanak egiten dituzte, baina elkarren artean. Ez dira klase partikularrak", dio Alustizak. Aste Santua ondoren hasi ziren Biterin biltzen eta aurreko aste-

ko ekitaldiekin bukatu dute aurtengo ikasturtea. Irailean jarraitzeko asmotan dira. □

PROCOLOR ZENTRUA
Landaribar, s.l.
Pintatzeko ekipoa
Industri eta dekoraziorako pinturak
Pintatutako paperak
Kardaberaz 45 -Tel 943 552131-HERNANI

ARANOKO JAIK

Osteguna arte jarraituko du Aranon festak

■ Gaur deskantsua, eta asteartean Doinuzale eta Ozenki abesbatzaren kontzertua.



Aranoko Elkartean oilasko jaten, larunbat gauean.

ARANON ere astelehena da gaur eta asteburuko pozak asentatzeko aprobetxatuko dute eguna. Larunbat gauean oilasko jatearekin hasi zen festa. 140 lagun inguru bildu ziren urteroko afarira. Ondorenean, berriz, gau giro zoragarria eta jendea animoso. Batzuk plazan dantza

Muxutruk taldearekin eta besteak Non Stop jaian, txandan txandan.

Atzo, umeak izan ziren protagonista. Asteazkenean, Arano eta Goizueta arteko Pelota partidua, herri kirolak eta bertsolariak izango dira. Ostegunean, berriz, jubilatutako eguna eta festa bukaera. □

OSTEGUNA ARTEKO JAI EGITARUA

ASTEARTEA 24

20:00: Herri meza.
20:30: Doinuzale eta Ozenki abesbatza.

19:30: Bertsolariak: Egaña, Mendiluze, Irazu eta Osa. Gai jartzen, Legarreta
20:30: Trikitixa: Leire eta Itxaso.

ASTEAZKENA 25

10:00: Goizsoinua
11:00: Herri meza
12:30: Pelota. Arano-Goizueta.
18:00: Herri kirolak. Saralegi anai-arrebak eta Kristina eta Rekondo aizkolariak.

OSTEGUNA 26

10:00: Goizsoinua
11:00: Herri meza, jubilatuentzat.
12:30: Pelota partidua.
14:00: Bazkaria, Agirre-Lazkano bertsolariak eta Leire-Itxaso trikitilariak.

HERIOTZAK

Kontxi Ortiz Sagarna

Uztailaren 16an hil zen A Coruñan 77 urte zituela.

Joxe Apezetxea Agirre

Larunbatean hil zen 60 urte zituela

Hileta elizkizunak gaur 19:00etan Juan Bataiatzailea parrokan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK ▶ Taxiak: 943 550093 ▶ Udaltzaingoa: 943 333288 ▶ DYA: 943 464622 ▶ Anbulatorioa: 943 557750 ▶ Jokalari anonimoak 943 331103	✚ FARMAZIAK ▶ Egunez: Bulnes Etxeberri - Florida ☎ 943 557738 ▶ Gaez: Elizondo Andoain - Zumea 30 ☎ 943 592629 ✚ ASTEARTEA ▶ Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 553582	▶ Gaez: Gorospe Andoain-Rikardo Arregi 12 ☎ 943 592415 ✚ ASTEAZKENA ▶ Egunez: Irigoien Elcano 2 ☎ 943 552087 ▶ Gaez: Zatarain Andoain Arteta s/n ☎ 943 590802
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

IRAGARKI MERKEAK

■ Pisu eguzkitsua salgai Hernanin 19 milioietan. Interesik duenak **655. 72 25 19** telefonora dei ezazue. Agentzietakoek ez deitu.

SAN INAZIO JAIK 2001

KANTU AFARIA

**ARANTXA ANSA
MAIDER ANSA
AINHOA ANSA**

EGUNA: Uztailak 27, ostirala

ORDUA: 20:30etan

LEKUA: Santa Barbara Elkartea

TXARTELAK GARINEN SALGAI 2000 pztan

Antolatzailea MORKAIKO KULTUR ELKARTEA